

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru-funtzionarioen seme-alabarengatik familiako laguntzak Gizarte Segurantzaren kotizatu gabe jarraituko du

*Justiziak Nafarroako Gobernuari arrazoia eman dio Gobernu zentralaren aurrean, azken horrek bi milioi inguru eskatzen baitzizkion*

Jueves, 07 de mayo de 2015

Administraziorekiko Auzien Iruñeko 2. Epaitegiak Nafarroako Gobernuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aurka jarritako errekurtsua baietsi du. Azken horrek Gobernuari bi milioi euro inguru eskatzen zizkion beren langileek jasotzen dituzten familiako laguntzen kotizazioengatik, dagozkien interesak nahiz isunak ordaindu ez izanagatik. 2014an, Nafarroako Gobernuak 7.077 langilek seme-alabarengatik familiako laguntza kobratu zuten. 4,9 milioi euro, guztira.



Justizia jauregia.

Errekurtsua aurkezteko aukera ematen duen epai horrek Nafarroako Gobernuaren eta Gizarte Segurantzaren arteko auzia konpontzen du. Azken horrek, 2012ko apirilean, bere irizpidea aldatu zuen, eta kotizazioak ordaintzeko eskatzen hasi zen Foru Administrazioak bere langile finkoei hainbat kasurengatik ematen dieten familiako laguntzengatik. Aurreko lau urteei dagokiena ordaintzeko ere eskatzen zuen, bai eta ez betetzeagatik sortutako interesen eta isunen errekaratu ere.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Segurantzari eskatutako zenbatekoa ordaindu zion 2013ko abenduan, eta dagokion errekurtsuari hasiera eman zion. Foru Administrazioaren asmoa, epaia irmoa denean bi milioi euro horiek berreskuratzea da.

Zehazki, epaiaren arabera, adingabeak edo desgaitasunak dituzten seme-alabak izateagatik emandako familiako laguntzak Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarrrian sartu behar dira. Kasu hori Nafarroako Gobernuak bere langileen emandako familiako laguntzen % 95 da gutxi gorabehera.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren arabera, seme-alabarengatik familiako laguntzaren gainean Gizarte Segurantzak lortu nahi zuen kotizazio-kostua 600.000 euro izango zen urtean; kopuru horretatik, 500.000 Administrazioak berak ordaintzen duen kuota patronalarentzat izango zen, eta 100.000 euro langileari soldatan

deskontatzen zaion zatiari egokituko zitzaion.

### **Ezkontide edo anai-arrabengatiko laguntza**

Bestalde, epaiak ezartzen duenez, diru-sarrerarik gabeko ezkontide edo bikote egonkorreko prestazioek (ebazpen judzialaren bidez ezarritako pentsioa eman behar zaion ezkontidea, eta funtzionarioarekin bizi diren eta ekonomikoki haren mende dauden aurreko edo anai-arrebak) kotizatu egin behar dute, eta hala egiten du Nafarroako Gobernuak 2013. urtetik, Gizarte Segurantzaren irizpide-aldaketaren ondoren.

Guztira, 642 langilek jaso zuten prestazio hori haien ezkontide edo bikote egonkorrek prestaziorik ez izatean; 270.000 euro, guztira.